

Azken xedapena

Zerga-ordenantza honen azken aldaketa 2023ko abenduaren 29an onartu zen behin betiko, 2024ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta aldatzea edo baliogabetzea erabakitzen den arte jarraituko du indarrean.

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Eranskina

Tarifa

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO EDO OBRA MOTA	KARGA TASA
Obra handiak (proiektu teknikoa eskatzen dute)	
— Zaharberrikuntza-lanak ez direnak	ehuneko 4
— Zaharberrikuntza-lanak	ehuneko 3
Obra txikiak (proiektu teknikoa ez eskatzen dute)	ehuneko 3

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala -eranskin honetan jasotzen den tarifa eta bilketarako aldia horren parte dira-, 2023ko abenduaren 29an onartu zen behin betiko, eta 2024ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta indarrean jarraituko du berariaz aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

HIRI-LURREN BALIO-GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA
ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Zuiako udal honek, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta zergari buruzko foru arau partikularrean aurreikusitakoarekin bat etorritz, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga ezarri eta exijitzen du ordenantza honen arabera. Ordenantza honen zati da koefizienteen taula eta tasa aplikagarria jasotzen dituen eranskina.

Zerga hori zuzeneko zerga da.

2. artikulua

Ordenantza Zuiako udalerri osoan aplikatuko da.

II. Zerga-egitatea

3. artikulua

1. Zergaldian zehar edozein tituluren bidez eskualdatzen diren hiri-izaerako lursailek izan duten balio-gehikuntza da zergaren zergapeko egitatea, edo lusail horien jabetza mugatzen duen edozein gozamen-eskubide erreal eratu edo eskualdatzen zaien hiri-lursailek izan duten balio-gehikuntza.

2. Ondorio horietarako, hiri-lurtzat hartuko dira:

Hiri-lurzorua, lurzoru urbanizagarri programatua edo hirigintzako jarduketa-programa onartzen den unetik programatu gabeko lurzoru urbanizagarria, zolatutako bideak edo espaloizintak dituzten lurrak, estolderia, ur-hornidura, energia elektrikoaren hornidura eta argiteria publikoa dutenak, eta hiri-izaerako eraikuntzek okupatutakoak.

Nekazaritza-legerian xedatutakoaren aurka zatikatzen diren lursailak ere halakotzat hartuko dira, baldin eta zatikatze horrek haien nekazaritza-erabilera hutsaltzen badu, eta horrek haien landa-izaeraren inolako aldaketarik ez badakar zerga honenak ez diren beste ondorio batzuetarako.

3. Zergari lotuta egongo da ondasun higiezinaren gaineko zergaren ondorioetarako ezaugarri berezikiotzat sailkatutako ondasun higiezinaren lursailen balio-gehikuntza.

III. Zergari lotuta ez daudenak

4. artikulua

1. Ondasun higiezinaren gaineko zergaren ondorioetarako landa-lurren balio-gehikuntza ez da zerga honen mende egongo, hau da, aurreko 2. puntuan xedatutakoaren arabera hiri-lurren izaera ez duten lurren balio-gehikuntza. Ondasun higiezinaren gaineko zerga horren ondorioetarako hiri-lurzorutzat hartu behar diren lursailek izango duten balio-gehikuntzari lotuta egongo da, haren katastroan edo erroldan halakotzat hartuta egon edo ez.

2. Ezkontideak ezkontide-sozietatera egiten dituzten ekarpenak, horien mesedera eta horien ordainketan ziurtatzen diren adjudikazioak, eta ezkontideei beren eduki komunaren ordainketan gauzatzen diren eskualdaketa ez dira zerga horren menpe egongo.

Xedapen bera aplikatuko zaie Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikoteko kideek aurreko paragrafoan aipaturako kasu berberetan egiten dituzten ekarpenak, esleipen eta eskualdatzei.

Era berean, ez da zergaren menpe egongo, ezkontza-baliogabetze, bereizketa edo ezkontza-dibortzio kasuetako epaiak betetzearen ondorioz ondasun higiezinak ezkontideen artean, Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikoteko kideen artean edo seme-alaben mesedetara eskualdatzen direnean, ezkontideen erregimen ekonomikoa edozein delarik ere.

3. Eskualdatze- eta eskuratze-datetan lursail horien balioen arteko diferentziagatik balio-gehikuntzarik ez dagoela egiaztatzen duten lursailen eskualdaketa ez dira zergapean egongo.

Horretarako, balio-gehikuntzarik ez dagoela egiaztatzeko interesa duenak eskualdaketa deklaratu beharko du, bai eta eskualdaketa eta eskuraketa dokumentatzen dituzten tituluak aurkeztu ere. Horretarako, interesduntzat joko dira Ordenantza honetako 7. artikuluan aipatzen diren pertsonak edo erakundeak.

Balioa handitu ez dela egiaztatzeko, eskualdatze-balio gisa edo lursaila eskuratzeko balio gisa, kasu bakoitzean hurrengo balioetatik handiena hartuko da kontuan, eta ondorio horietarako ezin izango dira zenbatu eragiketa horiek kargatzen dituzten gastu edo zergak: eragiketa dokumentatzen duen tituluan ageri dena edo, hala badagokio, Zerga Administrazioak egiaztatutakoa.

Higiezinaren eskualdaketa lurzorua eta eraikuntza sartzen direnean, lurzoruen baliotzat hartuko da zergaren sortzapen egunean luraren katastro-balioak katastro-balio osoarekiko duen proportzioa aplikatuta ateratzen dena, eta proportzio hori aplikatuko zaie bai eskualdaketa balioari eta, hala badagokio, baita eskurapen balioari ere. Proportzio hori bi hamartarrekin adieraziko da.

Eskurapena edo eskualdaketa kostu gabekoa izan bada, aurreko paragrafoetako erregelak izango dira aplikagarriak, eta, hala dagokionean, gorago aipaturako bi balio konparagarrietatik lehenengotzat oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan aitortutakoa hartuko da.

Paragrafo honetan aipaturako higiezinak geroago eskualdatzeko, lurren balio-gehikuntza agerian geratu den urte kopurua zenbatzearen, ez da kontuan hartuko erosi aurreko aldia. Paragrafo honetan xedatutakoa ez da aplikatuko, artikulua honen 2. paragrafoan edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren hemezortzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera lotuta ez dauden ondasun higiezinaren ekarpen edo eskualdaketen kasuan.

IV. Salbuespenak

5. artikulua

1. Zerga honetatik salbuetsita daude egintza hauen ondorioz agertzen diren balio-gehikuntzak:

a) Zortasun-eskubideen sorrera eta eskualdatzea.

b) Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 4. artikuluko 1. ataleko k) letran jasotako salbuespena aplikatu behar zaien ondasun eskualdaketak, baldin eta haien jabeek edo eskubide errealean titularrek egiaztatzen badute higiezin horiek kontserbatzeko, hobetzeko edo birgaitzeko obrak egin dituztela beren kargura.

2. Era berean, dagozkion balio-gehikuntzak salbuetsita egongo dira, hura ordaintzeko bete-beharra honako erakunde hauei dagokienean:

a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Bizkaiko Lurralde Historikoa eta udalerriari dagozkion toki-erakundeak, bai eta Autonomia Erkidegoko eta toki-erakunde horietako antzeko izaera duten erakunde autonomoak eta zuzenbide publikoko erakundeak ere.

b) Ezarpenaren udala eta gainerako toki-erakundeak (udalerriaren barrukoak zein udalerritara bera kide dutenak), udalaren baitako zuzenbide publikoko erakundeekin batera, horiek Estatuko erakunde autonomoen antzeko izaera dutenean.

c) Ongintzazko edo irakaskuntza arloko ongintzazko erakundeak.

d) Indarrean dagoen legeriaren arabera eratutako Gizarte Segurantzaren eta Mutualitate eta Bahitetxeen erakunde kudeatzaileak.

e) Administrazio-emakida itzulgarrien titularrak, horiei atxikitako lursailak dagokienez.

f) Gurutze Gorria eta erregelamendu bidez zehaztutako antzeko beste erakunde batzuk.

g) Nazioarteko itun edo hitzarmenetan salbuespena aitortuta duten erakundeak.

h) Irabazi-asmorik gabeko erakundeak, irabazi-asmorik gabeko erakundearen zerga-araubideari eta mezenasgorako zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauan (18.3 eta 18.4 artikuluetan) ezarritako moduan eta baldintzetan.

V. Hobariak

6. artikulua

Lurren eskualdaketetan, eta jabaria mugatzeko gozamen-eskubide errealek eskualdatzean edo eratzean, heriotza dela eta irabazpidez egiten badira, zergaren kuota ehuneko 100eko hobia aplikatuko da, eskuratzailerak haien ondorengoak edo lehen graduko aurreko edo adoptatzaileak eta ezkontidea badira, edo izatezko bikotea, 2003ko maiatzaren 7an, Eusko Legebiltzarraren 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako izatezko bikoteak badira.

VI. Subjektu pasiboak

7. artikulua

1. Honako hauek dira zergaren subjektu pasiboak, zergadun gisa:

a) Lursailen eskualdaketetan edo irabazpidezko jabariak mugatzen duten gozamen-eskubide errealean eraketan edo eskualdaketan, lursaila eskuratzen duen pertsona fisiko zein juridikoa, edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 35. artikuluko 3. atalean aipatzen diren erakundeak, edo dagokion eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen zaion pertsona.

b) Lursailen eskualdaketetan edo ordainbidezko jabariak mugatzen duten gozamen-eskubide errealean eraketan edo eskualdaketan, lursaila eskuratzen duen pertsona fisiko zein juridikoa, edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 35. artikuluko 3. atalean aipatzen diren erakundeak, edo dagokion eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen zaion pertsona.

2. Aurreko paragrafoaren b) letran aipatutakoetan, zergadunaren ordezkio subjektu pasibotzat hartuko dira Foru Zerga Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. atalean aipatzen den pertsona fisiko zein juridikoa edo erakundeak, baldin eta lursaila eskuratzen badute edo dagokion eskubide erreala haien alde eratu edo eskualdatu bazaie, zergaduna Espainian bizi ez den pertsona fisikoa denean.

3. Eskualdaketa hipoteka-zordunaren edo haren bermatzailearen ohiko etxebizitza ordainean ematearen edo hipoteka, epai edo notario bidezko betearazpenaren ondorioa denean eta horren higiezia eskuratzen duena kreditu-erakunde bat edo hipoteka-maileguak edo hipoteka-kredituak emateko jarduera egiten duen edozein erakunde denean, hura hartuko da zergadunaren ordezkio subjektu pasibotzat eta ordezkioak ezin izango dio zergadunari eskatu ordaindutako zergen zenbatekoa.

Paragrafo honen ondorioetarako, izaera bera izango dute hipoteka-zordunaren edo haren bermatzailearen ohiko etxebizitza ordainean ematen denean zordunaren ohiko etxebizitza eskuratzeko zorren bermerako abal-emaile gisa.

Paragrafo honetan aurreikusitako ondorioak izateko, zordunak edo bermatzaile eskualdatzaile edo abal-emaileak edo haren familia-unitateko beste edozein kidek, etxebizitza besterentzea saihesteko unean, hipoteka-zor osoa ordaindu ahal izateko beste ondasun edo eskubide ez izatea eskatzen da. Betekizun hori betetzat joko da.

Atal honetan aurreikusitako ondorioetarako, ohiko etxebizitzatzat hartuko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 87. artikuluko 8. atalean halakotzat definitzen dena.

Familia-unitatearen kontzeptuari dagokionez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 98. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio. Ondorio horietarako, senar-emazteak eta Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako izatezko bikotea parekatuko dira.

VII. Zerga-oinarria

8. artikulua

1. Zerga honen oinarria sortzapenaren unean agerian jarritako eta gehienez ere 20 urteko epean hiri-lurrek izandako balioaren benetako gehikuntza izango da. Artikulu honen 2. atalean xedatutakoa baztertu gabe, hura zehazteko, sortzapenaren uneko lurraren balioa I. Eranskinen ezarritako koefizientearekin biderkatuko da, hurrengo 3. atalean ezarritakoaren arabera kalkulatuta.

2. Subjektu pasiboak eskatuta, ordenantza honetako 4.3 artikuluko prozeduraren arabera, balio-gehikuntzaren zenbatekoa aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera zehaztutako zerga-oinarriaren zenbatekoa baino txikiagoa dela egiaztatzen denean, balio-gehikuntzaren zenbatekoa hartuko da zerga-oinarritzat.

3. Lurrak sortzapenaren unean duen balioa arau hauetan ezarritakoaren arabera izango da:

a) Lursailen eskualdaketetan, sortzapenaren unean duten balioa Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarako finkatutakoa izango da.

Hala ere, babes publikoko etxebizitzaren erregimenari atxikitako higieziinei dagozkien lursailen balioa kalkulatzeko, haren salmenta-prezioari 0,2ko koefizientea aplikatuko zaio.

b) Jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealen eraketan eta eskualdaketan, I. eranskinean jasotako koefizienteak ezarriko zaizkio aurreko a) atalean definitutako balioaren zatiari; zati horretan islatuta dago, hain zuzen, eskubide horien balioa, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren ondorioetarako finkatutako arauari jarraiki kalkulaturakoa, ondoren zehaztutakoaren arabera:

* Aldi baterako gozamenaren balioa ondasunen balioarekiko proportzionala izango da, urtebeteko aldi bakoitzeko ehuneko 2a, ehuneko 70a gainditu gabe.

* Biziarteko gozamenetan, balioa ondasunen balio osoaren ehuneko 70a dela zenbatetsiko da, gozamendunak 20 urte baino gutxiago dituenetan eta, adinak gora egin ahala, beste urte bakoitzeko ehuneko 1 gutxituko da, balio osoaren ehuneko 10eko mugarekin.

* Pertsona juridiko baten alde eratutako gozamena, 30 urtetik gorako edo zehaztu gabeko eperako ezarri bada, zergei dagokienez, suntsiarazteko baldintzari lotutako jabetza osoaren eskualdatzea dela ulertuko da.

* Jabetza soilaren eskubidearen balioari dagokionez, gozamenaren balioaren eta ondasunen balio osoaren arteko aldearen arabera zenbatuko da. Era berean, aldi baterakoak diren biziarteko gozamenetan, jabetza soila baloratzeko, aurreko lehenengo zenbakiko arauetatik balio txikiena ematen diona ezarriko da.

* Erabiltzeko eta bizitzeko eskubide errealean balioa kalkulatzeko, ondasunen balioaren ehuneko 75a aplikatuko da. Ondasun horiei ezarri zitzaizkien aldi baterako edo biziarteko gozamenak balioztatzeko arauak, kasu bakoitzean dagokionaren arabera.

c) Eraikin edo lursail baten gainean solairu bat edo gehiago igotzeko edo lurzorua azpian eraikuntza egiteko eskubideak eratzean edo eskualdatzean, azalera-eskubide errealik dagoenik eragin gabe, ordenantza honen I. eranskinean jasotako urteko koefizienteak 8. Aurreko a) atalean zehaztutako balioaren zatiari aplikatuko zaizkio, baldin eta, horri dagokionez, eskualdatzeko eskrituran finkatutako proportzionaltasun-modulua islatzen badu edo, halakorik ezean, lur arrasean edo lur azpian eraiki beharreko solairuen azaleraren eta behin eraikita horiek duten azalera edo bolumen osoaren arteko proportzioa ezartzearen ondoriozkoa.

d) Derrigorrezko desjabetzeen kasuetan, ordenantza honetako I. eranskinean jasotako urteko koefizienteak lurra baliotzeko balio justuaren zatiari aplikatuko zaizkio, 3. Atal honetako a) hizkian zehaztutako lurra baliotzeko balio txikiagoa denean izan ezik. Kasu horretan, galio justuari gailenduko zaio azken hori.

4. Balorazio kolektiboko prozedura orokor baten ondorioz katastroko balioak aldatzen direnean, lursailaren edo aurreko zenbakian jasotako arauen arabera dagokion lursailaren zatiaren balio hartuko da katastroko balio berriei udalak kasu bakoitzean ezartzen dien murrizketa aplikatetik ateratzen den zenbatekoa. Murrizketa hori katastroko-balio berrien lehenengo bost urteetako bakoitzari aplikatuko zaio.

Murrizketaren gutxienezko muga ehuneko 40 eta gehieneko muga ehuneko 60 izango da, eta, edozein kasutan, Zuiako udalak ezartzen ez duen gutxienezko mugan aplikatuko da, udalak murrizketarik ezarri ezean. Udalak murrizketa-tasa desberdina ezarri ahal izango du murrizketaren aplikazioko bost urteetako bakoitzerako.

Paragrafo honetan aurreikusitako murrizketa ez da aplikatuko, baldin eta balorazio kolektiboko prozeduraren ondoriozko katastroko-balioak ordura arte indarrean zeudenak baino txikiagoak badira.

Murriztutako katastroko-balioa ez da inoiz izango balorazio kolektiboko prozeduraren aurretik lursailaren katastroko-balioa baino txikiagoa.

5. Balio-gehikuntza sortu den aldia gehikuntza hori agerian jarri den urte-kopurua izango da.

Aplikazio-eremutik kanpoko kasuetan, Foru Arauak bestelakorik adierazi ezean, ondorengo lur-eskualdaketa batean agerian jarritako balio-gehikuntza sortu den aldia kalkulatzeko, aurreko lerrokadan xedatutakoaren ondorioetarako, zergaren aurreko sortzapena gertatu zen eguna hartuko da eskuratzeko datatzat.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, ordenantza honetako 4. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoa aplikatu behar zaien higiezinaren ondorengo eskualdaketa, lurra baliotzeko balio-gehikuntza agerian jarri den urte-kopurua zenbatzeko, ez da kontuan hartuko eskuratu aurreko aldia.

Igarotako urte-kopurua zenbatzeko, urte osoak hartuko dira kontuan, hau da, urte-zatiak kontuan hartu gabe. Sortu den aldia urtebetetik beherakoa bada, urteko koefizienteak hilabete osoen kopurua kontuan hartuta hainbanatuko da, hau da, hil-zatiak kontuan hartu gabe.

Sortzapenaren unean lurzoruak duen balioari aplikatu beharreko koefizienteak, balio-gehikuntza sortu den aldiaren arabera, I. eranskinean jasotakoak izango dira.

VIII. Zerga-kuota

9. artikulua

Zerga honen kuota, zerga-oinarriari II. Eranskinean adierazitako karga-tasa aplikatzearen emaitza izango da .

IX. Zergaren sortzapena

10. artikulua

1. Honako kasu hauetan sortzen da zerga:

a) Lurraren jabetza eskualdatzen denean, kostuen bidez edo doan, bizien artean edo heriotzaren ondorioz, eskualdaketa egunean.

b) Jabaria mugatzeko edozein gozamen-eskubide erreal eratu edo eskualdatzen denean, eraketa edo eskualdaketa egiten den egunean.

Aurretik xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira eskualdatze-datatzat:

a) Bizien arteko egintza edo kontratuetan, agiri publikoa egiletsi denean eta, agiri pribatuetan, agiri horiek erregistro publikoan sartu edo inskribatu direnean edo, bere lanbidea dela eta, funtzionario publiko bati eman zaionean.

b) Heriotza-ziozko eskualdaketa, kausatzailea hil deneko data.

2. Baldin eta, epai edo administrazio-ebazpen irmo baten bidez, lurren eskualdaketa edo lurak edukitzeko eskubide erreala eragiten duen egintza edo kontratua deuseztaturik, hutsaldurik edo suntsiarazirik dagoela adierazten edo aitortzen bada, subjektu pasiboak aurretik ordaindutako zerga berari itzultzeko eskubidea izango du. Beti ere egintza edo kontratu hori irabazteko ondorerik gabekoa bada eta zergaren itzulketa ebazpen irmoa ematen denetik bost urte igaro baino lehen eskatu bada. Interesatuak elkarri Kode Zibilararen 1.295. artikuluko itzulketak egin beharra dutela bidezkotu ezean, irabazteko asmoa dagoela ulertuko da. Hutsalketa edo suntsiarazpena zergapeko subjektu pasiboak eginbeharrak ez betetzearen ondorioz adierazi bada, ez da itzulketarik izango, nahiz eta egintza edo kontratua irabazteko ondorerik gabekoa izan.

3. Alderdi kontratatzaileek elkarren adostasunez kontratua efekturik gabe utzi badute, ez da ordaindutako zerga itzuliko eta egintza zergapeko egintza berritatzat joko da. Elkarren adostasuntzat hartuko dira bai adiskidetze-ekitaldian adostutakoa eta bai eskariari amore-emate hutsa.

4. Egintzek edo kontratuek baldintzaren bat dutenean, Kode Zibileko preskripzioen arabera kalifikatuko dira. Baldintza suntsiarazlea bada, zerga erreserba gisa eskatuko da, aurreko ataleko arauari jarraituz, dagokion itzulketa egiteko baldintza betetzen denean.

Testamentu-ahalmenaren edo botere osoko gozamenaren ondoriozko jaraunspenetan, ahalmena modu ezeztazinean erabili edo botere osoko gozamena egikaritzen denean edo hura azkentzeko arrazoietako bat gertatzen denean sortuko da zerga .

5. Botere osoko gozamenetan edo testamentu-ahalmenetan, pertsona jakin batek jarauntsiz ondasunen gozamenerako eskubidea bizi artean duenean, gozamen horren likidazio bakarra egingo da, oinordetza ireki deneko sortze-datarekin, gozamendunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera eta biziarteko gozamenen arauak aplikatuz.

Botere osoko gozamenetan edo testamentu-ahalmenetan, gozamena botere hori erabiltzean azkentzen bada, gozamen horren bi likidazio egingo dira, gozamendunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera:

a) Lehen likidazioa, heriotza gertatzen denean, biziarteko gozamenaren arauak aplikatuta.

Hala ere, testamentu-ahalmena gauzatzeko epe jakin bat badu, lehen likidazio hori aldi baterako gozamenaren arauen arabera egingo da, ahalmen hori egikaritzeko ezarritako gehieneko epean.

b) Beste likidazio bat, botere osoko gozamena edo testamentu-ahalmena erabiltzean, aldi baterako gozamenaren arauak erreparatuta, kausatzailea hil zenetik igarotako aldiarengatik, aurrekoagatik ordaindutakoa konturako sarreratzat hartuta, eta aldea gozamendunari itzuliko zaio, haren aldekoa bada. b) hizkiari dagokion likidazioa oinordekoena egiten den unean egin beharko da, botere osoko gozamenaren edo testamentu-ahalmenaren oinordekoak direla adierazten badu, edo hura azkentzeko gainerako arrazoiengatik.

6. Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legean 43. Artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, xedapen-egintzen ondorioz botere osoko gozamena edo testamentu-ahalmena egikaritzeko dauden jaraunspenak eragindako lursailen eskualdaketetan, eskualdatze horiek Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena ez dakartenean, Foru Arau honetan ezarritako xedapen orokorrak aplikatuko dira, honako berezitasun hauekin:

a) Aurreko paragrafoan adierazitako eskualdaketetan, Oinordetza Zergaren subjektu pasiboa izango da testamentu-ahalmena egikaritzetik edo gozamen-ahalmena egikaritzetik geratzen dena, eta zerga eskualdaketa gertatzen den unean sortuko da.

b) Zerga-kuota zehazteko, likidazio bat egingo da, eskualdaketaren unean sortuko dena, kausatzaileak lurra erosi zuenetik igarotako denboragatik. Gainera, diru-sarrera gisa eman zena kontuan hartuko da Foru Arau honetako 8. artikuluko 5. atalean xedatutakoaren arabera egindako likidazioan ordaindutakoa.

Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legean xedatutakoaren arabera xedapen-egintzen ondorioz, testamentu-ahalmena edo botere osoko gozamena egikaritu zain dagoen jaraunspenaren bitartez eskuratutako lursailak eskualdatzen direnean, likidazio bat egingo da, eta eskualdaketaren unean sortuko da, jaraunspenaren bidez lurra eskuratu zenetik igarotako denboragatik.

c) Testamentu-ahalmena edo botere osoko gozamena modu ezeztazinean erabiltzen denean, edo hura azkentzeko arrazoietako bat gertatzen denean, jaraunspen bidez eskuratuak izan arren, testamentu-ahalmena edo gozamen-ahalmena egikaritu zain dauden lurra eskualdatzen badira, ekainaren 25eko 5/2015 Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko Legeak adierazi duen bezala, likidazio bakarra igorriko zaio gozamendunari, aldi baterako edo biziarteko gozamenaren arauen bidez. Lursailaren izaeraren arabera, egikaritu zain dagoen jaraunspenaren bitartez lursaila eskuratu zuenetik testamentu-ahalmena edo botere osoko gozamena gauzatu arte igarotako denboragatik. Likidazio hori jaraunslerei dagozkienak egitean egin beharko da, baldin eta testamentu-ahalmena edo gozamen-ahalmena erabiltzeagatik edo hura azkentzeko gainerako arrazoiengatik jaraunslak badira.

d) Zerga honen ondorioetarako, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren hogeita hamargarren xedapen gehigarriaren hirugarren atalean jasotako xedapenak aplikatuko dira.

X. Kudeaketa

11. artikulua

1. Subjektu pasiboek aitorpena aurkeztu behar diote udal-administrazioari, beronek ezarritako eta emandako ereduaren arabera eginga. Eredu horretan likidazioa egiteko behar diren zerga-elementuak eta gainerako datuak agertuko dira.

2. Aitorpena honako epe hauetan aurkeztu beharko da, zerga sortu den egunetik zenbatzen hasita:

a) Bizien arteko egintzak direnean, epea hogeita hamar egun baliodunekoa izango da.

b) Heriotzagatiko egintzen kasuan, epea sei hilekoa izango da, urtebetera arte luzatu ahal izango da subjektu pasiboak eskatuz gero.

3. Adierazpenarekin batera, nahitaez, zerga ezartzea eragin duten egintzak edo kontratuak jasotzen dituen agiria aurkeztuko da.

Eskatzen diren salbuespenak edo hobariak ere agiri bidez justifikatu beharko dira.

Ordenantza honetako 4. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz loturarik ez badago, beren beregi jasoko da hori adierazpenean.

Subjektu pasiboak ordenantza honen 8. artikulua 2. apartatuan xedatutakoarekin bat etorritik erabakitzen badu zerga-oinarria, beren beregi jasoko da aitorpenean. Hautatutako aukera ezin izango da aldatu zerga-administrazioak zerga-betebeharraren elementu guztiak edo batzuk aintzatesteko, erregularizatzeko, egiaztatze, ikuskatzeko, segurtatzeko edo likidatzeko edozein ekintza egin badu, zergapekoak horren berri formalizanda.

Udalak hogeita hamar eguneko epean zergaren likidazioa gauzatzeko beharrezkotzat jotzen dituen beste agiri batzuk aurkez ditzatela eskatu ahal izango die pertsona edo erakunde interesdunei. Epe hori beste hamabost egunez luzatu ahal izango da, interesdunak hala eskatuta. Gainera, epe horien barruan egindako errekerimenduei erantzuten ez dietenen zerga arloko arau-hausteak egin eta horiei dagozkien zehapenak izango dituzte, dokumentu horiek adierazpena egiaztatze beharrezkoak diren heinean. Dokumentu horiek interesdunak bere onerako alegatutako inguruabarrak frogatzeko bidea baino ez badira, errekerimendua ez betetzeak likidazioa egitea ekarriko du, alegatutako eta justifikatu gabeko inguruabarrak alde batera uzteaz gain.

4. Testamentu-ahalmen edo botere osoko gozamen bat egikaritzeko zain dauden jaraunspenetan, aurreko betebeharrak betetzea horien administratzaileari dagokio. Administratzaileak aitorpena sinatu beharko du eta dagokion zerga-zorra ordaintzeaz arduratuko da.

Era berean, zergaren ordainketaren erantzule subsidiarioa izango da testamentu-ahalordea egikaritzeko zain dagoen jaraunsiaren administratzailea eta botere osoko gozamenduna, botere osoko gozamena egikaritzeko zain badago.

12. artikulua

1. 11. artikuluko 1. atalean xedatutakoa gorabehera, hurrengo hauek zerga subjektu pasiboen epe berberetan ordaindu dela jakinarazi beharko diote Udal Administrazioari:

a) Ordenantza Fiskal honetako 7. artikulua a) atalean jasotako kasuetan, bizirik dauden arteko negozio juridikoan eman badira, emaila edo eskubide erreala eratzten edo eskualdatzen duen pertsona.

b) Aipatutako 7. artikuluko b) atalean jasotako kasuetan, eskuratzalea edo eskubide erreala eratu edo eskualdatu zaion pertsona.

2. Era berean, notarioek aurreko hiruhileko naturalean baimendutako dokumentu guztien zerrenda edo aurkibidea igorri beharko diote udalari hiruhileko natural bakoitzaren aurreko hamabostaldian. Bertan, zerga honen zergapeko egitatea udalerrian gauzatu dela adierazten duten egitateak, egintzak edo negozio juridikoak jaso beharko dira, azken nahiaren egintzak izan ezik. Halaber, epe beraren barruan, sinadurak ezagutzeko edo legitimatzeko asmoz aurkeztu zaizkien dokumentu pribatuen zerrenda bidali beharko dute. Dokumentu horietan egitate, egintza edo negozio juridiko berberak jasota daude. Artikulu honetan ezarritakoak ez du baztertuko Arabako Zergen Foru Arau Orokorrean ezarritako lankidetzarako betebeharrak orokorra.

Notarioek berariaz ohartaraziko diete agertutako pertsonen, balioztatzen dituzten dokumentuetan, pertsona interesdunek zergaren aitorpena aurkezteko duten epeari buruz, bai eta aitorpenak ez aurkezteagatik dituzten erantzukizunei buruz ere.

13. artikulua

1. Deklaratu ez diren zergapeko egitateen berri duenean udal-administrazioak, 11. artikuluan adierazitako epeen barruan, deklarazio hori egiteko errekerimendua egingo die interesdunei. Horrek ez du eragotziko zerga arloan egindako arau-hausteengatik dagozkion zehapenak jasotzea.

2. Lehen aipatutako errekerimenduak egin ondoren, interesdunek ez badute kasuan kasuko aitorpena aurkezten, udal-administrazioak espedientea ofizioz izapidetuko du, bere esku dau-den datuekin, eta dagokion likidazioa egingo du eta, hala badagokio, sarrera-epeak eta dagoz-kion errekurtsoen adierazpena adieraziko ditu. Horrek ez du eragotziko zerga arloan egindako arau-hausteengatik dagozkion zehapenak jasotzea.

Xedapen gehigarria

8.2 b) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ezarritakoaren arabera, honako arau hauek bete beharko dira:

1. Aldi baterako gozamenaren balioa ondasunen balioarekiko proportzionala izango da, urte-beteko aldi bakoitzeko % 2, % 70 gainditu gabe. Aldi baterako gozamenaren balioa zenbatzeko, ez dira kontuan hartuko urtebetetik beherako denbora-zatiak; hala ere, urtebetetik beherako gozamena ondasunen balioaren ehuneko 2an zenbatuko da.

2. Biziarteko gozamenetan, balioa ondasunen balio osoaren ehuneko 70a dela zenbatetsiko da, gozamendunak 20 urte baino gutxiago ditueanean eta, adinak gora egin ahala, beste urte bakoitzeko ehuneko 1a gutxituko da, balio osoaren ehuneko 10eko mugarekin.

3. Pertsona juridiko baten alde eratutako gozamena, 30 urtetik gorako edo zehaztu gabeko eperako ezarriko balitz, zergei dagokienez, suntsiarazteko baldintzari lotutako jabetza osoaren eskualdatzea dela ulertuko da.

4. Jabetza soilaren eskubidearen balioari dagokionez, gozamenaren balioaren eta onda-sunen balio osoaren arteko aldearen arabera zenbatuko da. Era berean, aldi baterakoak diren biziarteko gozamenetan, jabetza soila baloratzeko, aurreko arauetatik balio txikiena ematen diona ezarriko da.

5. Erabiltzeko eta bizitzeko eskubide errealeen balioa kalkulatzeko, ondasunen balioaren 100eko 75 aplikatuko da. Ondasun horiei ezarri zitzaizkien aldi baterako edo biziarteko goza-menak balioztatzeko arauak, kasu bakoitzean dagokionaren arabera.

Azken xedapena

Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala, zeinaren parte baitira eranskin honetan aplikatu beharreko urteko koefizienteak eta karga-tasa, 2023ko abenduaren 29an onartu zen, eta 2024ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta indarrean jarraituko du berariaz aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

HIRI-LURREN BALIO-GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA
ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

Eranskina

I. Koefizienteak

SORTU DEN ALDIA	KOEFIZIENTEA
Urteb. baino gutxi.	0,14
Urte 1	0,13
2 urte	0,14
3 urte	0,15
4 urte	0,17

SORTU DEN ALDIA	KOEFIZIENTEA
5 urte	0,17
6 urte	0,16
7 urte	0,12
8 urte	0,10
9 urte	0,09
10 urte	0,08
11 urte	0,08
12 urte	0,08
13 urte	0,08
14 urte	0,09
15 urte	0,10
16 urte	0,13
17 urte	0,17
18 urte	0,23
19 urte	0,29
20 urte edo gehiago	0,45

II. Tasa

Karga-tasa: ehuneko 15.

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINeko ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Udalak ordenantza honen arabera eskatuko du trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta zerga honi buruzko foru arauan aurreikusitakoarekin bat etorritz. Ezarri beharreko tarifak jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

2. artikulua

Ordenantza hau Zuiako udalerri osoan aplikatuko da.

II. Zerga gaia

3. artikulua

Honakoek osatuko dute zerga gaia:

1. Bide publikoetatik ibil daitezkeen trakzio mekanikoko ibilgailuen titularra izatea, ibilgai-luak edozein mota eta kategoriatakoak direla ere, zirkulazio baimenean zehazten den helbidea udalerri honetakoa bada.

2. Zirkulaziorako ibilgailu egokia da dagokion erregistro publikoetan matrikulatu den eta horietan bazarik eman ez duen ibilgailua. Zerga honen ondorioetarako, egoki izango dira, ha-laber, aldi baterako baimena eta turismo matrikula duten ibilgailuak.

3. Honako hauei ez zaie ezarriko zerga:

a) Antzinako modeloa izanik erregistroetan baja emanda dauden ibilgailuak, nahiz eta, sal-buespen gisa, horrelako autoen erakustaldi, txapelketa edo lasterketa mugatuetan ibiltzeko baimena izan.

b) Trakzio mekanikoko ibilgailuek arrastatutako atoi eta erdiatoiei, baldin eta haien karga erabilgarria 750 kilogramo baino gehiagokoa ez bada.